



KOKAPENA

DEBA

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

DEBAKO UDALA - DEBEGESA

DENBORA-ERREFERENTZIA

2003-2009

EKINTZA

UNE-EN ISO 14001 nazioarteko arauak ezarritako baldintzetan oinarritutako Ingurumen kudeaketa sistema ezartzea Debako Hondartzan.

LORPEN NAGUSIAK

Hondartzaren kudeaketa egoki eta adeitsua, etengabe hobetzen ari den kudeaketa erreminta bat erabiliz.

ZAILTASUNA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Altua)

1

GIZARTE ERAGINA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Altua)

2

DATU INTERESGARRIAK

Deskribapena

Debako Udalak -ingurumena errespetatzeak eta baliabide naturalak babesteak duen garrantzia kontuan hartuta- 2002. urtean, Tokiko Agenda 21aren lehenengo urratsak emanez, Debako hondartzan, Ingurumena kudeatzeko sistema bat ezartzea erabaki zuen. Hondartza da Debako gunerik garrantzitsuenetarikoa eta bere babesa eta zaintza Udalaren lehentasuna da. Horrela, ingurumen kudeaketa sistema UNE-EN ISO 14001 nazioarteko arauak ezarritako baldintzetan oinarritzea erabaki zen. Azkenik, lan gogorra egin ondoren, 2003ko maiatzean lortu zuen zegokion ziurtagiria, hori lortzen zuen Euskal Herriko hirugarren hondartza izan zelarik.

Erreminta honen bitartez, honako ekintzak egiten dira:

- Aspektu ezberdinak kontrolatzen dira, beraien artean instalazioen ur eta energi kontsumoa eta hondakinen sorrera.
- Hondartzaren erabileraren kalkulua egiten da udaran.
- Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egiten dira.
- Hondakinen banaketa sustatzen da hondartzako erabiltzaileen artean
- Hondartzako zerbitzu guztiak koordinatzen dira.
-


Ingurumena kudeatzeko sistema hori tresna egokia da, hondartza eta ingurunearen hobekuntzan era sistematiko batean lan

egiteko. Kostaldearen egoera eta zerbitzuen etengabeko hobekuntzan aurrerabide bat da.


Lorpenak:

Lorpenen artean hurrengoak azpimarratu behar dira:


Evolución del volumen de ocupación de la playa en temporada de baño




Evolución de la recogida de envases




Hiri-hondakinen bilakaera hondartzako erabiltzaile eta azaleraren arabera



Ur-kontsumoaren bilakaera hondartzako erabiltzaile eta azaleraren arabera



Consumo de energía eléctrica



Zailtasunak:

- Sistema bizirik mantentzeko, lan administratiboak egin behar dira.
- Urtero ziurtagiria berritu egin behar da eta horrek kostu bat du.

Arrakasta faktorea:

- Hondartzako erabiltzeak ohiturak hobetu dituzte.

Harremanetarako:

Debako Udala

Agenda 21 Teknikaria - Idoia Alvarez

Telefonoa: 943.192.840

Emaila: hondartza@deba.net